

Kulturgileak mugimendu sozialen tradizioan: euskal intelektualak euskalgintzan

Ane Larrinaga Renteria
EHUko irakaslea eta UEUko kidea

Kultura-baliabideen sortzaile eta erabiltzaile diren heinean, intelektualak botere sinbolikoz horniturik agertzen zaizkigu gizartean. Botere hori delata medio, ezinbesteko partaidetza izaten dute gizartean ohikoak diren borroka sinbolikoetan, hau da, errealitate sozialari buruzko definizio-gatazketan. Halaz ere, kultura eragile guztiek ez dute botere-maila bera izaten. Kultura-instituzioen gabeziaren ondorioz, euskal kulturgileek mugimendu-ekimenez jardun behar izan dute eskuarki esparru kulturala osatzeko. Horiek horrela, euskararen eta euskal kulturaren alde mugimendu horretan aritutako kulturgileek gune kognitibo eta intelektual garrantzitsua eraiki dute historia modernoan zehar. Mugimenduak, alde batetik, ohiko kultura-esparruaren funtzioak bete ditu, eta, bestetik, funtzio politiko nabarmenak, mendeko kulturaren iraupenera zuzendutako erresistentzia kognitiboa izan baitu xede.

GAKO-HITZAK: Intelektual · Gizarte-mugimendu · Euskalgintza

Inasmuch as they create and utilise cultural resources, intellectuals are invested with symbolic power. As a consequence of that power, they inevitably participate in the symbolic struggles that occur in society, that is, in the conflicts over the definition of social reality. However, not all cultural agents have the same degree of power. Facing the lack of cultural institutions, Basque intellectuals have had to construct a cultural field on the basis of social movements. As a result, the intellectuals who have acted in the movement in favour of Basque language and culture have built an important cognitive and intellectual nucleus over the course of modern history. On the one hand, the movement has carried out the normal functions of a cultural field, and, on the other, it has fulfilled evident political functions, given that it has held the objective of a cognitive resistance aimed at maintaining the subjugated culture.

KEY WORDS: Intellectuals · Social movements · Euskalgintza

1. Errealitate sozialaren alde sinbolikoa

Intelektual hitzak kulturaren mundua dakarkigu gogora. Halaber, kulturari buruzko hausnarketak ezinbestean garamatza errealitate sozialaren osaketa sinbolikoa aztertzeraz. Izan ere, gizarte-errealitatea sinbolikoki eraikitako errealitatea dugu. Horrek esan nahi du gizarte-sistemak, bere dimentsio objektiboarekin batera, esanahi, sinbolo eta sinestez osaturiko beste alderdi bat ere baduela. Bi alderdi horiek, alderdi objektiboa eta sinbolikoa, modu bereizezinean loturik daude, interes analitikoaren ondorioz banatu egiten ditugun arren.

Gizarte-errealitatearen dimentsio sinbolikoak integrazio soziala izaten du helburu. Halaz ere, integrazioaren eginkizun hori ez da erabat bete ahal izaten. Aitzitik, gizarte-errealitatearen oinarri gatazkatsua behin eta berriro azaleratu ohi da. Batetik, gatazkak egiturazko mailan adierazten dira sarri: gizakien arteko baliabide material eta botere-bitartekoen banaketa asimetrikoak izan ohi dira horren lekuko. Bestetik, gatazkak errealitateari buruzko esanahien eraikuntzan ere agertzen dira, interpretazio desberdinak tartean direla, gizarte-eragileak aurrez aurre jartzen dituen borroka sinbolikoaren bitartez (Larrinaga, 2007a: 125).

Soziologiaren autore klasikotzat jotzen direnen lanetan etengabe agertzen da gizarte-errealitatearen dimentsio estrukturalaren eta sinbolikoaren arteko dialektika. Marx-ek, esaterako, arreta jarri zuen gatazka sozialaren ikuspegi objektiboan; hortaz, gizarte-errealitatea eragile sozialen arteko indar-harremanen multzoa delako ideia jaso dugu berarengandik. Ideia horretatik abiatuz ondorioztatzen dugu menderatze-harreman sozialen sustraia baliabide materialen banaketa asimetrikoan oinarritzen dela. Baliabide horiek erdiesteko gizarte-eragileak norgehiagoka desorekatuan lehiatzen dira etengabe. Halarik ere, gure ustetan gizartean auzitan dauden baliabideak, hemen “baliabideei” ematen diegun adiera zabalean, ez dira soilik ekonomikoak izaten; horiekin batera, era guztietako baliabide sozialak hartu behar ditugu aintzakotzat, hala nola politikoak, kulturalak edo kognitiboak. Azken ildo horretatik, Weber-en ekarpenetatik gizarte-errealitatea esanahi-harremanen multzoa dela gordetzeko asmoa dugu. Hartara, ezaugarri gatazkatsua —eta amaitugabea— izateaz gain, errealitate sozialak dimentsio sinbolikoa ere badaukala jaso dugu harengandik, irudikapenek eta beste elementu kognitibo eta kulturelek parte hartzen baitute haren eraikuntzan.

Zergatik begitantzen zaigu hain garrantzitsua sozialtasunaren eraketa bikoitz hori kontuan hartzea? Bada, funtsezkoa delako gizarte-bizitza ezaugarritzen duten menderatze- eta mendekotasun-harremanen iraupena ulertu ahal izateko. Izan ere, harreman asimetrikoek mundu “naturala” osatzen dute —hau da, “naturalizata” azaltzen dira— gizarte-errealitatean. Nola irauten du, bestela, era guztietako desberdintasunez jositako mundu sozialak? nola irauten du bidegabekeriaz betetako munduak, gizabanako gehienen onespenerarekin ez bada? Eragile sozialek partekatutako esanahi-sistema batek delako mundu horri zentzu jakin bat egozten diolako mantentzen da, zalantzarik gabe.

Zentzu-ekoizpen horri esker izango ez balitz, bai boterea bai baliabide sozialen banaketa asimetrikoa —bere adierazpen guztietan— nekez sustraituko lirake epe luzean inposaketa hutsaren erabilera. Hartara, indarraren osagaia harreman

sozialetan itsatsita dagoen arren, etengabeko bortxa ezin da behin eta berriro erabili modu gordinean. Indarrezko harremana izanda ere, gizarte-harremanek zentzu-harreman bihurtu beharra daukate irauan ahal izateko. Horixe izan da botere sinboliko ororen funtsa. Gizaki askoren pertzepziotik at gelditzen diren bidegabe-keria askok prozesu sinbolikoen amarruetan daukate beren tresnarik eraginko-rra. Prozesu horien arabera, menderatze-harremanak harreman afektibo bilakatzen dira, eta botere-harremanek eta desberdintasunek karismaren eta berezko dohainaren mozorroa hartzen dute gizartean.

2. Kulturaren boterea, botere sinbolikoa

Karismaren baliotasunaz mintzo zela, Weber-ek zioen mendekoez karismari egindako aitortzaren arabera dela karisma horren boterea. Bestela adierazita, mendekoen sinesteetan ez beste ezertan funtsatzen da botere karismatikoa haren ustetan (Weber, 1979: 194). Ildo beretik, Durkheim-ek honako hau azaltzen du aginteaz: gizakiek agintearen ideari buruz egiten duten sineste batean oinarritzen dela, agintearen jatorria gizartean dagoela eta, azken finean, ezin dela banako jakinen ezaugarri berezietan funtsatu (Durkheim, 1976: 245). Machiavelli-k ere, botere politikoaren magia azaldu nahian, gobernatzea sinetsaraztea dela zioen.

Autore horiek guztiek esan dutenaren hari beretik, kulturaren izenean hitz egitea ere sinetsaraztea dela berretsi dezakegu guk. Izan ere, agintaritza-kokapen batetik —aginte kultural, ekonomiko edo politikotik— mintzatzeak bide ematen dio sinesteari; eta horrela hitz egiteak sineste bera ere indartu egiten du. Baina, gizartean gauzatzen diren “egintza magikoak” amarruaren ezjakintasunetik baino ezin dira burutu. Beste modu batera esanda, egintza magikoek egintza horien hartzaille den eragile sozialaren konplizitatea behar dute ezinbestean.

Gizarte-ordena orotan egon ohi da biolentzia sinbolikoa. Modu sinple batean esanez, gizarte-eragileen konplizitatea baliatuta ezartzen den bortizkeria da biolentzia sinbolikoa. Bortxa hori burutu ahal izan dadin, gizarte-eragileek ezjaki-nean egon behar dute, eta, aldi berean, onspena eskaini behar diote menderatzaileari. Horrela, biolentzia gisa ezagutzen ez den inposaketa onesten da prozesu horretan. Gertatzen dena ez da harritzekoa, menderatzearen alderdi sinbolikoa ulertzen baldin bada. Izan ere, mendekoa egoerari dagokion indarkeriaz ohartzen ez denean gauzatzen da benetan menderatzea. Beraz, indar-harremana, mendekoen sinestean oinarritzen da, mendekoak menderatzailearen nagusitasunari buruzko sineste barneratuta baitauka. Halatan, mendekoen onspenarekin batera indar-erlazioa zentzuzko harreman bilakatzen da. Noiz eta nolatan ahalbidetzen da era horretako aldaketa? Gehienetan goiz-goizdanik errotzen da gizakien baitan konplizitate hori, sozializazioarekin batera, hain zuzen (Larrinaga, 2007a: 138). Dударik gabe, sozializazioaren eraginez, pertzepzio-eskema jakin batzuk barneratzen dira, esate baterako, zenbait kualitateen aurrean begirunea, miresp-ena, oniritzia edo estimua sortzeko gauza diren gaitasunak. Barneraturiko sineste horiek gizakien sentikortasuna pizten dute adierazpen sinboliko jakin batzuen aurrean, dela botere politikoaren irudikapen publikoen aurrean, dela aginte kultu-ralaren presentzian dela botere ekonomikoaren aitzinean. Modu horretan barne- ratzen dira aginte kultural, politiko zein ekonomikoari buruzko errespetua eta lilura soziala funtsatzen duten sinesteak.

Hartara, bortizkeriarik gordinenean oinarritzen denean ere —armen edo diruaren erabileran, adibidez— menderatzeak dimentsio sinbolikoa izan ohi du beti. Mendekotasun- eta obediencia-egintzak egitura kognitiboak baliatzen dituzten aintzatespen-egintzak izaten dira, gizarte-egituren barneratzearen emaitzak. Sistema sinbolikoa den heinean, kulturak bere eragileen bitartez ezar dezakeen menderatzea ere ikuspegi berean ulertu behar dugu. Kultura-sortzaileek zenbait baliabide eskuratzeko daukaten aukera —ezagutza eta hizkuntza legitimoa, besteak beste— kulturgileen botere sinbolikoaren funts bilakatu da. Hortaz, baliabide kulturalen desjabeturiko bestelako eragile sozialekin dauzkaten menderatze-harremanek oinarri hori hartzen dute abiapuntu.

Gizarte modernoan nagusitu den ezagutza arruntaren barruan intelektualei buruzko irudikapen karismatikoak zabaldu dira eskuarki. Hala, sortzailearen, “talentuaren” eta “jenio” indibidualaren irudiak ondo erroturik egoten dira gure gizarteetako iruditeria kolektiboan, kulturgileez hitz egiten denean. Irudikapen horien arabera, dohain naturalaren eta subjektibitatearen ondorio zuzentzat jotzen da kulturgilearen agintaritzak. Oharkabean gelditzen da kulturgileek metatutako gaitasunen jatorri soziala —eta haien baliabideek eskuratzen duten zilegitasuna gizartean—. Hartara, irudikapen arrunt horiek estali egiten dute, alde batetik, kulturgileak sozializazio-prozesu baten bitartez “irabazi” behar izan duen kokapena kulturaren esparruan eta, bestetik, haren agintaritzak soziala onesteko eragile sozialek —bai kultura esparrukoek bai esparrutik kanpo daudenek— barneratuta eduki behar duten sineste multzoa.

Gaur egungo gizarteetan, hain zuzen ere “ezagutzaren gizarte” deritzaten horietan, nagusi dira kultura-, zientzia- eta ezagutza-adituen balio gorenari buruzko sinesteak: azken horien arabera ezagutzaren forma legitimoak —sozialki legitimatuak— eta zilegitasunik ez daukatenak bereizten dira. Aipatu usteak gizaki batzuen ezagutzei buruzkoak ez ezik haien hizkuntza-gaitasun legitimoari buruzkoak ere izaten dira, agintez horniturik uzten baitzaie hitz egiten gizaki batzuei gure gizartean. Hartara, sineste horiek guztiek ahalbidetzen dute kulturgilearen jarduna; areago, bidea ematen diete kulturgilearen baliabide espezifikoaren onespenera eta aitortzari. Onespen hori gertatzen denean, kultura-eragilearen baliabideak “kapital” bihurtzen dira, ondorioz, eraginkortasunez erabil daitezke gizarte-harremanetan tresna boteretsu gisa.

Baliabide kulturaletatik datorren indarra metatzen duen neurrian (ezagutzak, argitalpenak, meritu akademikoak, literarioak edo artistikoak) are boteretsuago bilakatzen da kulturgilea. Izan ere, kapital hori kultura-esparruaren barruan izaten da lehendabizi onartua eta baloratua, eta, bigarrenik, gizarte-esparruan. Dena den, intelektualak jasotzen duen ordainsariak ez du agertzen beti itxura ekonomikoa; aintzatespen sozialaren mekanismoek —hala nola prestigioak, begiruneak edo mirespenak, instituzio akademiko, zientifiko edo literarioetako kidegoak, kargu-izendapenak, tituluek eta ohoreak— antzeko funtzioa betetzen dute unibertso kulturalaren logikan. Halaz ere, etekin sinbolikoak gai dira, epe batean, beste era bateko irabazpen bihurtzeko. Transmutazio hori garrantzitsua da, oso, kultura-baliabideak helburu ekonomikoak erdiesteko bide modura ez ezik tresna politiko gisa ere erabiltzen direlako eraginkortasun handiz (Bourdieu, 1995: 319-328, 373-375).

3. Kulturaren baliabideak gizarteko borroka sinbolikoetan: intelektuala

Arestian aipatu denez, kultura-kapitala baliabide eraginkorra izan daiteke gizartean, alegia, kultura-kapital hori botere sinboliko gisa balia dezakete kultura-eragileek. Izan ere, gizarte-espazioak gune sinboliko modura funtzionatzen du. Are gehiago, gatazkarik gabeko uestezko itxurapean ere, mundu soziala etengabeko borroka sinbolikoen emaitza eta agertokia dugu. Borroka horiek era bereizezinean kognitiboak eta politikoak izan ohi dira (Larrinaga, 2002: 385). Izan ere, holakoetan gizarte-eragileen interesak eta errealitateari buruzko ezagutzak eta interpretazioak nahasirik agertzen dira. Beraz, borroka sinbolikoetan gizarte-eragileek errealitate sozialaren irudikapen jakinen ezarpenaren alde egiten dute, eurentzako mesedegarrienak izan daitezkeen gizarte-errealitatearen printzipioak ezarri nahi baitituzte arau legitimo gisa. Hartara, borroka kognitibo horien xedea mundu sozialaren zentzuaren ezagutza legitimoa inposatzeko agintaritzaren lortzea izaten da, mundu horren oraingo esanahia nahiz etorkizuneko norabidea zuzendu ahal izateko. Zerregin horretan, berez helburu politikoetara orientaturik ez badaude ere, kulturgingintza-esparruek baliabide egokiak eraikitzen dituzte gizarte-errealitatea egin eta ebalua dezaketen printzipioak sortzeko. Kulturgileak, modu askotan, mota horretako baliabideen jabe izan ohi dira.

Esanak esan, ezagutzaren gizartean era guztietako taldeak, gizarte-mugimenduak eta agintari sozialak etengabe baliatzen dira zientziaz eta ezagutza-adituaz euren diskurtsoak eta egintzak legitimatzeko. Mundu sozialaren barnean gero eta eragile gehiagok erabiltzen dituzte jakintza legitimatuak errealitate sozialari buruzko irudikapenak sortzeko lanean, eraginkortasun sozial eta politiko handiagoa lortzeko xedearekin. Zenbaitetan, lan horiek indarrean dagoen ordena mantentzera zuzendurik egon ohi dira; beste zenbaitetan, ordena sinbolikoa iraultzea eta hautemate-kategoriak eraldatzea izaten da helburua. Baina, azken helburua edozein izanda, ezagutza legitimatuaren erabilerari erreparatu orduko, botere sozialaren auziarekin egin dugula topo ohartzen gara. Hala, gizarte-errealitatearen pertzepzio- eta ebaluaketa-eskemei buruzko norgehiagoka antzematen da ezagutzaren erabilera guztietan, mundu-ikuskera legitimoa eta behin betikoa ezartzen duten tresnak egoten baitira jokoan. Eta auzi sozialei dagokienez, sozialki izateko gaitasuna ematen duen boterearen bilaketa sumatzen da gizarte-ezagutza legitimoen erabilera horietan.

Esan den bezala, kulturaren baliabideak izan ohi dira borroka sinbolikoetan erabilitako bitarteko zilegiak. Horrenbestez, ezin da ahaztu baliabideok gizakikategoria jakin batzuen baitan biltzen direla bereziki. Hain zuzen ere, kulturgileak kapital sinboliko indartsuaren jabe izan ohi dira gure gizarteetan. Ondorioz, sortutako produktu sinbolikoei euren aldeko baliorik mesedegarriena jartzeko egoera hobean egoten dira, gainerako gizarte-eragileak baino. Ezbairik gabe, kultura-esparruan —eta haren azpiesparruetan— eskura daitezkeen gaitasun tekniko eta ezagutza berezituak sozialki onetsitako agintaritzaren ematen dute, hainbestekoa non, aginte horren jabe direnek gizarte-errealitateari buruzko diskurtsoak egiteko gaitasun handiagoa izaten duten. Beste modu batera adierazita, munduaren gaineko egintza kontzientea burutzeko ahalmen handiagoa biltzen dute euren baitan, beste gizaki batzuek baino. Hartara, gizakikategoria horien egintza kontziente eta sistematikoa izan ohi da mundu sozialak bere irudikapena osatzeko erabiltzen

duen bitartekarizetako bat (Larrinaga, 2002: 386). Intelektualez mintzo gara, noski.

Badago, beraz, kultura-gaitasunak ematen duen zilegitasun mota bat. Zilegitasun horrek kultura-baliabideak kapital politiko bihurtzeko aukera eskaintzen du. Era horretan, ezagutza zientifikoa eta jakintza adituaren ekoizpena eta transmisioa bideratzeko ahalmena daukatenak, ahalmen hori bide dela, diskurso legitimoen ekoizpenerako tresnen jabe izan ohi dira. Sarritan, beste eragile batzuei ez bezala, arazo eta iritzi legitimoak definitzeko gaitasuna onartzen zaie gizartean. Dena den, gogoratu behar da kultura sortzaile guztiek ez dutela kokapen —eta, beraz, ahalmen— bera izaten ez kultura esparruaren barruan ezta gizartean ere.

Hartara, kulturaren harreman-sareetan dauzkaten kokapenek muga batzuk inposatzen dizkiete kulturgintzako kideei, hala kultura-sortzaile nola kultura-erakundeei. Kokapen bereizgarrietatik hainbat botere motaren banaketa ondorioztatzen da —botere kultural nahiz politikoa— baita kulturgileen produkzioei egindako balio-egozte bereizgarriak ere —zilegitasun, prestigio eta agintaritzza bereizgarriak—. Egiazki, horiek guztiek berebiziko eragina izaten dute kulturgileen produktu sinbolikoen eraginkortasun sozialean. Izan ere, kultura-esparrua testuinguru sozialean txertaturik dago eta testuinguru horrek ondorioak izan ohi ditu haren funtzio-namenduan. Horiek horrela, bestelako botere sozial eta politikoei buruzko distantziak, tresna gisa erabilitako hizkuntzaren estatusak, instituzio zientifiko, akademiko eta intelektual jakin batzuekin izandako harremanak, gizarte-talde batzuei buruzko kidetasunak, eta antzeko faktoreek baldintzatu egiten dute kultura-sortzailearen jarduna. Are gehiago, kokatu egiten dute intelektuala ordena hierarkiko batean non, gaitasun kultural eta akademikoan oinarrituriko ordenamenduaren itxurapean, boteregune sozial eta politikoetan dauden sarbideen araberrako hierarkia atzematen den. Hala, gizarte orokorrak bezala, kultura-esparruak ere, asimetriaz beteriko unibertso bat osatzen du.

4. Hizkuntza, baliabide bereizgarria kulturaren esparruan

Arestian aipatu denez, kulturgileek kultura-esparruan dauzkaten kokapen objektiboak, bertan metatu dituzten baliabideen araberrakoak izaten dira. Azken finean, kultura-esparrua interes jakin batzuen inguruan —alegia, interes kulturalen inguruan— sortutako kosmos sozial bereizia da. Harreman-esparru horretan kokatzen dira intelektualak eta kultura-erakundeak. Horien guztien arteko jardueran —eta euren arteko indar-harremanen ondorioz— ezartzen dira esparruko arauak eta baliabide legitimoak (Bourdieu, Wacquant, 1992: 72-73). Ildo horretatik, hainbat hizkuntzaren arteko ukipena gertatzen den egoera sozialetan, kulturgileei onetsitako ohiko baliabideez gain —hau da, jakintzan oinarrituriko lan, titulu, agiri, kargu akademiko eta ohoreez gain—, jarduera kulturalerako erabilitako hizkuntzek ere esanahi soziala eskuratzen dute. Horrenbestez, hizkuntza bat baino gehiago dagoen testuinguruan, prestigio- eta zilegitasun-maila bereizgarria egozten zaio hizkuntza bakoitzari hala gizartean nola kultura-esparruan.

Kultura-esparru partikularren osaketa historikoa eta hizkuntza jakinen garapena lotu-loturik egon dira Mendebaldeko historian. Hartara, gaur egungo hizkuntza baten zilegitasun sozialaren maila ezagutu nahi izanez gero, hari atxikitako kultura-

esparruaren eraketa-prozesua arakatu beharko genuke. Dakigunez, alde batetik, kultura-esparruak esparru politiko eta ekonomikoari buruzko autonomia irabaziz eratu ziren Mendebaldeko herrialdeetan (Bourdieu, 1975, 1983, 1995). Baina, aldi berean, esparru horien sorrera nazio-estatuaren jaiotzari lotuta egon zen. Eta dioguna ez da kontraesan bat. Autonomiaren eta heteronomiaren arteko dialektikak hasiera-hasieratik baldintzatu zuen kulturaren garapena. Estatuak kultura-esparru modernoak garatzeko baldintzak ezarri zituen, zalantzarik gabe, baina ez kultura guztienak. Estatu modernoaren sorrera aztertu duten autoreek bi prozesu nabarmendu dituzte bereziki egitura politiko horren hastapenetan: batetik, koertzio-baliabideen kontzentrazioa eta, bestetik, baliabide ekonomikoen kontzentrazioa, hain zuzen (Weber, 1979: 1047; Tilly, 1992: 40-45; Elias, 1993: 426-446; 1994: 90). Halaz ere, gertaera horiek pareko prozesua izan zuten kultura kapitalaren bilketan eta kultura-merkatuaren baterakuntzan. Zentzuzkoa da bilakabideok loturik egon behar izan zutela pentsatzea. Izan ere, estatu aurreko gizarte-ordena —komunala eta tradizionala— gainbeheran zegoenean eta, ondorioz, bestelako ordenaren eraikuntzari ekin zitzaionean, esparru guztietan jardunez baino ezin zitekeen burutu aldaketa: gobernuan, ekonomian eta kulturen edo, nahiago baldin bada, biolentziari, kapitalari eta ekoizpen sinbolikoari zegozkien arloetan, hurrenez hurren. Horrela, eremu horietako guztietako baliabideak metatuz egin zitzaion aurre egundoko berreraikuntza sinbolikoari, hots, ordena modernoak legitimatzeko ataza erraldoiari. Hartara, estatu sortu berriak indarkeriaren baliabideak eta baliabide ekonomikoak ez ezik baliabide sinbolikoak ere menderatu eta metatu egin behar izan zituen (Larrinaga, 2007a: 78-79). Biolentzia eta legitimazioa loturik agertu ziren heinean, estatua beharturik egon zen sozializazio-eragileak eta kultura-erakundeak ere garatzera. Horrela, Aro Modernoan kulturaren esparru partikularrak botere politikoaren babespean baino ezin izan ziren sortu.

Horrenbestez, estatuak era guztietako kultura-baliabideak bereganatu zituen; gizarteko beste esparruetan gertatu zen bezala, prozesu horrek desjabetzearen ondorioa ekarri zuen atzetik kultura-esparruan ere. Salbuespenak salbuespen, estatuak ezin zuen onartu bere mugen barnean jasotako jatorrizko komunitateen kultura-aniztasuna. Kultura-ugaritasun hori hizkuntza-dibertsitatean ez ezik, ohituretan, foru tradizionaletan eta beste hainbat ezaugarritan ere adierazten zen. Estatuak ekarritako kulturak, ordea, bateratzaile nahi zuen izan gehienetan. Halatan, estatuak kultura-merkatuaren baterakuntza eragin zuen, bertan zeuden kode guztiak batuz —mintzairak, legeak, neurriak— eta komunikazio-forma guztiak homogeneizatuz, bereziki idatzizkoak eta burokratikoak.

Geroztik, gizarte-errealitatea sortzeko tresna eraginkorrak eskuratu ahala, gizartea bere neurrira eraiki eta moldatzen ahalegindu da estatua. Hainbestearino non, Beranduko Modernitateko “gizarte globalaren” ideia agertu baino lehen, Aro Modernoko gizarte partikularrak estatuak eratutako gizarteekin identifikatu diren —adibide adierazgarri gisa, soziologian erabili izan denean, gehienetan gizarte estatalarekin parekatu izan da “gizarte” kontzeptuaren adiera (Lamo de Espinosa, 2001: 36)—. Egiazki, zuzenbidea, jardunbide burokratikoak, eskola-egiturak eta gizarte-erritualak bide direla, kulturaren eredu hegemonikoa sortu ez ezik mendekoen buru-egiturak egokitu ditu estatuak bere bilakaeran. Horrela, mundu-ikuspegi, hautemate-printzipio eta pertenezia-molde jakin batzuk ezarri ditu

haien baitan luzaroan (Bourdieu, 1997: 117). Besteak beste, “nazio-nortasuna” deritzan hori sortzen lagundu du, eta nahiz eta gaur egungo mundu globalean gizabanakoen baitan beste partaidetza-sentimendu askorekin batera atzematen den, oraindik orain lotura sendo gisara dirau haientzat.

Estatuak ezarritako loturak zailak zitezkeen erdiesteko, batasun kulturala eta linguistikoa bermatuta egon ez balira lehendabizi. Zalantzarik gabe, hizkuntza eta kultura nagusien ezarpenari lotuta dago kulturaren batasuna. Dena den, batasun horrek bere iruntzia izan du; hizkuntza eta kultura nagusiak zilegizko eredu bakar bihurtzen diren unean, beste berbeta eta kultura-aldaera guztiak duineztasunaren guneetan bazterturik uzten ditu estatuaren jardunak. Hortaz, zenbait hizkuntza edo kultura partikular “unibertsaltasunaren” mailara iritsi direnean Aro Modernoan, partikularitasunaren bazterguneetara zigortuta geratu dira beste hizkuntzak eta kulturak. Estatuaren eraketaz geroztik, haren barnean hizkuntza unibertsala eta kultura unibertsala —hau da, estatalak— eratu dira. Eta, aldiz, hizkuntza eta kultura “partikularrak” arrazoiz eta gizatasunez gabeturik utzi dira (Bourdieu, 1985). Bada, harrezkero, gizatasunaren ezaugarria izateko eskakizun batzuk bete behar izan dituzte hizkuntzek eta kulturek. Baina, ez mintzaira guztiak ezta adierazpen kultural guztiak ere —zehazkiago esateko, haien eramaile sozialek— ez dute gizarte modernoetan beharrezkoak diren birsorkuntza-baliabideak eskuratzeko ahalmenik izan. Ondorioz, unibertsaltasunerako sarbidea gutxi batzuen monopolio bilakatu da, eta gehiengoak —gainerako hizkuntzak, gainerako kulturak eta abar— eredu legitimo eta unibertsaletik at geratu dira. Desjabetze-prozesu hori nabarmena izan da hizkuntza- eta kultura-komunitate bat baino gehiago dauzkaten zenbait estatutan, frankotan elkarte politikoak ukatu egin dizkielako hizkuntza- eta kultura-talde guztiei “hizkuntza” nagusiarri eskainitako birsorkuntza eta sozializatzeko baliabide berberak (Miranda, 1989: 249). Zalantzarik gabe, dominazio politikoaren beste aurpegi bat izan ohi da deskribatzen ari garen menderatze sinbolikoa —besteak beste, mendeko taldeen baliabide kulturalak desjabetzeko dinamikan ere gauzatu izan baita gehienetan dominazio politiko hori—. Hala, hizkuntza eta kultura bereiziak tartean egon direnean, desjabetze soziopolitiko horren ondorio historiko gisa hizkuntza/kultura nagusiekin harremanetan definitutako mendeko hizkuntzaren eta mendeko kulturaren errealitateak sortu dira.

Dakigunez, Modernitatearen egoeran, mendeko kulturak nekez osatzen du esparru garatua, alegia, gizartean kultura birsortu ahal izateko eragile eta sozializazio-erakunde ofizialez hornitutako esparrua. Horiek horrela, denboraren poderioz mendeko hizkuntzak komunikatzeko gero eta eraginkortasun gutxiago erakusten du eta hizkuntza nagusiak haren ohiko jardungune sozialak bereganatzen ditu. Belaunaldien artean transmisiorako nahiz gizarte-erabilera normalizaturako dauzkan zailtasunak kontuan hartuta, mendeko hizkuntzaren *corpusa* urritu egiten da. Bestalde, haren estatus soziala degradatu egiten da mailaketa sinbolikoari dagokionez. Bada, hizkuntza eta kultura legitimoak ezarrita egonez gero, edozein hizkuntza-praktika edo kultura-adierazpen eredu legitimoaren arabera ebaluatzen eta neurtzen da objektiboki. Ildo horretatik, arau legitimoak ezartzen ditu inklusioak eta eskusioak kultura-auzietan, hark bereizten du baimenduta eta baimenik gabe dagoena, onartuta eta debekatuta dagoena, “benetako” kultura dena eta estatutu horretara iristen ez dena, balioa duena eta “debaluaturik” —balioa galdua—

gelditu dena. Arrazoi askorengatik, mendeko hizkuntzak —eta mendeko kulturak— sozialki debaluatuta agertzen dira ondasun sinbolikoen merkatuan.

5. Kultura-esparrua eraikitzeko saioak mugimendu-ekimenen bitartez: erakundetu gabeko kulturetako kulturgileak mugimendu sozialetan

Behin baino gehiagotan, mendeko hizkuntzen eroale izan diren hizkuntza-komunitateak —haien eliteen ekimenez— gizarte-mugimendu gisa antolatu dira Mendebaldeko historia modernoan zehar, beraien jatorrizko hizkuntzak eta kulturak aldarrikatzeko eta berreskuratzeko asmoz. Talde sozial horien auzi identitarioak eta kulturalak boteretik ezari loturik egotean, aipatu mugimenduek eskuarki izaera politikoa eta kulturala bildu dute aldi berean.

Salbuespeneko egoeretan, hizkuntza/kulturaren aldeko mugimenduak rol intelektual berriak sortzeko gune egokiak izan daitezke, bereziki azpiinstituzionalizatuturik dauden kultura-esparruetan. Ikus dezagun nola. Kultura batzuek Modernitatearen garaian nozitu duten azpiinstituzionalizazio hori arestian aipatu ditugun mendekotasun-harremanen emaitza izan da. Ondorioz, esparru kultural autonomo propiorik osatu ezin izan duten mendeko kulturei dagokienez, gizarte-mugimenduek kultura-instituzioen tokia hartu dute eskuarki. Halatan, instituzio politikoen babesik ezean, behin baino gehiagotan, mugimendu-ekimenez sortu behar izan dituzte kultura-eliteek sozializazio-erakundeak —eskolak, akademiak, hedabideak— eta mugimenduen inguruan hezi behar izan dituzte mendeko kulturaren kulturgile berriak ere. Bestelako erakunde ofizialen gabezia, mugimenduek sortutako gune kultural alternatiboetan kontsakratu dira intelektualak holakoetan. Aldi berean, ekimen horien buruzagitza hartzean, elite kulturek hizkuntza eta kultura gutxitua berreskuratzeko egitasmoen lidergoa bereganatu dute.

Egungo ezagutzaren gizarteak baliabide kognitibo eraginkorrak eskaini dizkie mugimendu horiei. Ildo horretatik, era askotako ezagutzak eta jakintza berezituak daude gaur egun mugimenduen buruzagien eskura egintza kolektiboa eratzeko lanabes gisa. Bitarteko kognitibo horien erabilera dela medio, egungo ezagutza legitimoen zilegitasuna mugimenduei —eta haien xedeei— transferitzen zaie etengabe. Gauza bera gertatzen da mugimendu horietan parte hartzen duten kulturgileen zilegitasun sozialarekin. Izan ere, kulturgileen botere sinbolikoa baliatzen dute mugimendu kulturek euren jardunean.

Alabaina, aipatu botere sinbolikoa erlatibizatu egin behar da mendeko kulturez eta hizkuntzez ari garela. Hain zuzen ere, bi esparruk definitzen dute mendeko intelektualetan kokapen sinbolikoa. Batetik, barnera begira, bere jatorrizko kultura/hizkuntzaren esparruan nagusi diren indar-harremanak hartu behar dira aintzat mendeko kulturgilearen definizioa egiteko; dakigunez, esparru hori guztiz hornitu gabe egon ohi da. Bestetik, kanpora begira, kontuan eduki behar dira mendeko kulturaren eta kultura nagusiaren artean ezarrita dauden botere-harremanak, kultura-esparru nagusiaren eraginak eta arauak mendeko esparrura zabaltzen baitira era askotara. Izan ere, mendeko kultura/hizkuntzaren esparru intelektualetan kokatzen den kulturgilearen botere sinbolikoa, hau da, gizartearen agente kulturalarekin eragiteko ahalmen legitimoa, mendeko kulturaren indarraren edo ahuleziaren arabera izan ohi da. Bestela adierazita, egoera sozial gataz-

katsuan ohikoa denez, kultura-esparru hegemonikoaren logikak zalantzan jartzen ditu bai mendeko kultura adierazpenen balioa bai mendeko kulturgileen botere sinbolikoa.

Hori dela-eta, mendeko kulturetako kulturgileek halako mugimenduetan parte hartzen dutenean, “plus” bat eranstean diote euren partaidetza intelektuari. Izan ere, bazterturiko kulturaren eta hizkuntza gutxituaren egoerak erabat nahasten du kulturgilearen rola bera: haren estatusa eta, oro har, intelektual gisa daukan eginkizuna lotu-loturik daude hizkuntzaren eta kulturaren ibilbideari. Horregatik, gutxitutako kulturaren eta hizkuntzaren estatus normalizatu aldarrikatzean, mendeko kulturgileak aldi berean bere estatus intelektualaren normalizazioa eta onespina aldarrikatzen ditu. Horrela, partaidetza horren asmoen artean esparru intelektualen arteko hierarkiak azpikoz gora jartzea egoten da —esparru nagusiaren eta mendekoaren artekoak, batik bat—. Hala, gatazka sozial nahiz politikoen parekoak izan ohi diren borroka sinbolikoek inon baino adierazpen bortitzagoak izaten dituzte kultura-esparruetan, eta mendeko kultura-esparruak eta mendeko intelektualak borroka horietan nahasirik daudenean, haien jarduna mendeko kultura eta hizkuntzaren aldeko erresistentzia kognitibo gisa gauzatzen da.

Ildo horretan, kulturaren eta hizkuntzaren aldeko gizarte-mugimenduek mendeko intelektualentzat eduki duten —eta daukaten— garrantzia berebizikoa da. Esparru intelektual normalizatu batean sortzen den kulturgileak eskura izaten ditu sozializazio-erakunde egokiak eta gune intelektual ganorazkoak bere prestakuntza eta hedapen-lanak gauzatu ahal izateko —eskolak, unibertsitateak, liburutegiak, hedabideak eta merkatu garatua—. Ordea, mendeko kulturgileak osatu eta instituzionalizatu gabeko kultura-esparrua eduki ohi du eta, askotan, garatu bako hizkuntza ere. Kultura gutxitu bat berreskuratzeko mugimendua osatzen denean, asmoa izaten da kultura-esparrua eratuko duten instituzioak mugimendu-ekimenez sortzea. Horiek izan ohi dira mendeko kulturgilearen bitarteko nagusiak. Halatan, mugimenduak sortutako kultura-guneen inguruan definitzen dituzte mendeko kulturgileek euren tradizio intelektualak beste agertoki instituzionalik ezean. Mugimendua bera gune kognitibo bat da eta ohiko kultura-esparruaren funtzioak betetzen ditu.

6. Euskalgintza eta euskal kulturgileak, mugimendu-tradizioan erroturik

Historian zehar euskararen eta euskal kulturaren alde osatu den euskalgintza izeneko mugimendua ikuspegi askotatik aztertu izan da, bereziki linguistikotik. Guk uste dugu, maila intelektual batean, gune kognitibo gisa funtzionatzen duen esparrutzat har daitekeela. Izan ere, gizarte-mugimenduak ezagutza-ekoizle garrantzitsuak dira, Eta, ezagutza-ekoizle izanik, baliabide sinboliko asko sortzen eta mobilizatzen dute euren helburua betetzeko, alegia, errealitatearen interpretazio-marko alternatiboak eraikitzeko (*framing-processes*) (Snow, Benford, 1988; 1992; Hunt, Benford, Snow, 1994). Baliabide horien artean, gizarte garatuetako lehia sinbolikoetan ezinbestekoak diren era guztietako kulturgileak eta kultura-bitartekoak egon ohi dira. Beraz, guneotan hainbat tradizio intelektualetan txertaturik dauden kulturgileek parte hartzen dute, besteak beste, mugimenduen interes kognitibo erantzuteko sortutako berariazko intelektualek. Azken horiei mugimendu-intelektualak deritzete (Eyerman, Jamison, 1991: 98).

Edozein mugimendu ezaugarri badaiteke gune kognitibo gisa, euskalgintza ez da salbuespena, arestian esan dugun bezala. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduan izugarritzko sorkuntza intelektuala aurkitzen dugu. Ildo horretatik, ohartzen gara mendeko egoeran dauden beste hizkuntza-komunitate askotan gertatu den antzera, euskalgintzak ohiko kultura-erakundeen tokia hartu duela: hiztun-komunitateak beharrezkoak izan dituen funtzio kulturalak bete dituela eta kulturagileei euren rola eta nortasunak eraikitzeke premiazkoak dituzten agertoki publiko-instituzionalak ere eskaini dizkiela, besteak beste. Horrela, erakunde politiko eta erakunde kultural legitimoen gabeziak herri-ekimenaren moldez jantzi ditu luzaroan kultura-egintza gehienak.

Izan ere, esparru politikoaren eta kultura-esparruaren garapena lotu-loturik egon ohi dira. Ildo horretatik, euskal kulturak Modernitatearen garaian nozitu zuen azipi instituzionalizazioaren arrazoia hiztun-komunitatearen gorabehera politikoetan bilatu behar da. Zehazki esanda, euskararen eta haren kulturaren azpigarapen kulturala euskaldunen mendekotasun politikoaren ondorio zuzena izan da. Halatan, instituzio politikoek ekimenik ezean, mugimenduaren ekimenez sortu izan dira sozializazio-erakundeak euskal kulturari —eskolak, akademiak, hedabideak— eta haren inguruan hezi edo birsozializatu dira mendeko kulturaren —euskal kulturaren— eliteak. Bestelako erakunde ofizialen gabezi-egoeran, euskalgintzak sortutako gune kultural alternatiboetan kantsakratu dira euskal kulturagileak hainbat belaunalditan. Hitz batean, euskararen eta euskal kulturaren birsorkuntza mugimenduaren eta mugimendu-kulturagileen baitan egon da, hein handi batean. Kulturaren jazarpen politikoak eta, ondorioz, kulturaren “mugimendu” ezaugarri horrek esanahi politikoz bete ditu denbora luzez euskal kulturaren kultura-egintzak eta, oro har, mendeko euskal kulturagileen lanak; azken horien zereginetako bat izan da hizkuntzaren aldeko erresistentzia kognitiboa lantzea.

Euren komunitatean aitortu zaien aginte soziala dela medio, euskal kulturagileek hizkuntzari buruzko irudikapenak sortzeko eta irudikapen horiek hiztun-komunitatean zabaltzeko ahalmena erabili dute etengabe. Halaber, hizkuntzaren *corpusa* eta estatusa aldatzeko hainbat interbentzio-proiektu landu dituzte. Gutxitan izan dute erabateko arrakasta. Baina, alor bietan aritzean, kulturagileek hiztunen *habitu*sean¹ eragiteko xedearekin jardun dute. Bestela adierazita, hiztunengan barneratuta dauden gizarte-praktiken aldaketa izan dute helburu. Hartara, esaten ari gara hizkuntza-komunitate baten jokamolde linguistikoak ulertzeko, bereziki komunitate minorizatuen egoeran, berebiziko garrantzia daukala kultura-eliteek —beste elite batzuekin batera— sortzen eta hedatzen dituzten irudikapenen azterketak. Izan ere, hizkuntza-taldearen arteko gatazka guztiek adierazpenak izaten dituzte mintzaira praktiken arloan, baina baita arlo sinbolikoan ere. Horrenbestez, hizkuntza-gatazka gatazka sinbolikoa ere izaten da, ezinbestean. Auzi sinboliko horietan hizkuntzei buruzko zenbait definizio sozial lehiatzen dira legitimazio bila. Dakigunez, ohiko borroka sinbolikoetan lehia intelektualak gauzatzen dira. Hala, hizkuntza-gatazkan ere, kulturagile batzuek hizkuntza gutxituen aldeko lan intelektuala egin ohi dute, indarrean dagoen errealitatearen interpretazio hegemonikoa aldatzeko arrazoi kultural “legitimoak” (sozialki onartuak) baliatuz. Aldiz, beste intelektual batzuek mendeko hizkuntzen aurkako politikak elikatzeke zerbitzu sinbolikoak

1. Hiztunak sakoneko aztura gisa barneratuta dituen hizkuntza-praktika inkontzientek.

eskaini ohi dituzte, definizio nagusiaren aldeko arrazoiak eskainiz. Nolanahi ere, Aro Modernoan eta Beranduko Modernitatean, eztabaida intelektuala —arrazoi zientifikoez eta baliabide kulturalaz hornitua— agerian egon ohi da hizkuntzei buruzko auzietan, mendeko hizkuntza-komunitateak erresistentzia kognitiboa erakutsi duen guztietan, behinik behin.

Ildo horretan, euskal kulturgileen lan intelektuala ezin da euskarak eta euskal kulturak nozitu dituzten gatazka eta lehia sinbolikoetatik bereizi. Garaian garaiko baliabide kognitiboak baliatuta eta garaian garaiko baldintza soziopolitikoek baimendutako aukeretara egokituta osatu dute euskal kulturgileek euskalgintza deitzen dugun gune kognitibo hori. Gehienetan egoera politiko eta kultural desegokian egin dela kontuan hartuta, zeregin nekeza eta korapilatsua bete dute kultur-gile horiek. Gaur ezagutzen dugun euskalgintza, besteak beste, kapital kultural eta sinboliko baten metaketa historikoaren emaitza da. Bestela adierazita, euskal kultur-gileek denboran zehar —bereziki XIX. mendearen amaieratik aurrera— euskarari buruz eta euskal kulturari buruz sortutako lan, ideia, irudikapen, proiektu eta ezagutza multzoaren ondorena da.

Kultur-gileek euskalgintzaren esparrura ekarritako berrikuntza kognitibo, intelektual eta politikoak aintzat hartzen baditugu, hiru une historiko nabarmendu daitezke kapital kulturalaren metaketa-prozesu horretan: Eusko Pizkundearen garaia lehena, 1960/70 hamarraldiko kultura-pizkundera bigarrena, eta 1980ko hamarraldiko instituzionalizazio autonomikoaren garaia hirugarrena (Larrinaga, 2007b). Horietako bakoitzak erakusten duenez, euskal kultura-esparruan gertatutako aldaketak beti etorri dira euskal gizarteak bizi izan dituen bestelako egiturazko aldaketekin batera. Hartara, kultura-esparruaren autonomia onartzen bada ere, argi dago eraldaketa politikoek eta sozioekonomikoek astinduak eragin dituztela euskalgintzan nagusi izan diren interpretazio-markoetan. Intelektualen sorkuntzalana areagotu egin da aldaketa-une horietan eta iraultza sinboliko garrantzitsuak gauzatu dira hizkuntzari eta kulturari dagozkien arloetan ere.

Horiek horrela, zein garaitan eta non agertu zen lehen intelektual-uholdea? Hain zuzen ere, Frantziako Iraultzaren ondorengo Ipar Euskal Herrian eta foruen abolizioaren osteko Hegoalde gero eta industrializatuagoan sortutako Eusko Pizkunde deritzan mugimenduaren baitan. Sasoi bereko beste mugimendu etnolinguistikoko askok bezala, jatorrasuna eta modernotasuna —*authenticity and modernity*, Fishman-en hitzetan— bildu nahi izan zituen Eusko Pizkunderak (Zalbide, 1988). Izan ere, Europako estaturik gabeko nazio taldeen pizkunde kulturalak estatu garaileek ezarritako bazterketa kulturala gainditzeko saiatu ziren. Hartako, Mendebaldeko kultura nagusian ustez kontrajarrita zeuden bi printzipio —Tradizioa eta Ilustrazioa (Izueta, 1996: 24)— bateragarri zirela erakutsi nahi izan zuten. Ildo horretan kokatzen da Eusko Pizkundera ere. Modernitatea berriro interpretatzeko lanak borroka kognitibo batean murgildu zituen Pizkundearen inguruan elkartutako intelektualak. Ezagutzazko baliabide legitimoak erabiliz, euskal protokultur-gileek euskara eta euskal kultura erreformatzen eta egokitzen jardun zuten Modernitate garaileak ekarritako menderatze sinbolikoari aurre egiteko asmoz. Hartara, Pizkundearen garaian hasitako euskararen kodifikazio- eta arautze-lanak, baita kultura-tradizioaren berreskuratze- eta egokitze-zereginak ere, Tradizio/Modernitate binomioaren interpretazio berri horren testuinguruan irakurri behar dira.

Halaz ere, jakina denez, mugimendu kulturalarekin batera garatu zen hastape-netako euskal nazionalismoak bazterrean utzi zituen nazio-erakuntzan hizkuntzari garrantzia ematen zioten planteamendu kulturalistak. Baina, Pizkunde garaiko kulturgileek zirriborrotuta utzi zituzten geroko euskalgintzaren oinarritzko xedek. Hori izan zen euren ekarpenik handienetakoa.

Bigarren aldaketa-une nagusia 1960/70 urteetan kokatu dugu. Hamarraldi horietan gertaturiko kultura-susperraldia euskal nazioaren bestelako ikusmoldea zekarren definizioarekin batera sortu eta, hartara, euskal nazionalismoaren pizkundeari lotuta gauzatu zen. Ikusmolde berri horretan euskara hartu zen euskal nortasunaren oinarritzat. Kulturaren eta politikaren arteko uztardura horrek, zalan-tzarik gabe, gaur egun arte euskalgintzan ainguraturik egon den “erreferentzia-marko” nagusiaren² oinarriak jarri zituen. Sortzen ari zen euskal elite kultural eta politiko gazteek irudikaturiko definizioan euskaldunen zapalkuntza kulturalak jatorri politikoak zeuzkan. Ondorioz, mendekotasun horretatik askatzeak jarduera kulturala lan politikoaren barnean kokatzea eskatzen zuen. Euskara euskal nortasun kolektiboaren osagai bilakatu izanak ondorio nabarmenak izan zituen euskal hizkuntzaren eta kulturaren berreskurapen- eta modernizazio-lanetan. Areago, beste esanahi bat eman zien egintza horiei, esanahi politikoa zentzurik zabalenean.

Hartara, mendeko kultura komunitate baten erresistentzia-mugimendu gisa irudikatu zen euskalgintza, eta euskararen eta kulturaren berreskurapena nazio-erakuntzaren barruan kokatu ziren. Horiek horrela, erresistentzia-mugimenduaren zereginak jarduera politikoetara eta kulturaletara bideratu ziren. Erresistentzia kulturalari dagokionez, bi eginkizun bete zituzten elite kulturadunek euskal kultura esparruaren osaketa-prozesuan. Lehenik, 60ko hamarraldiko protokulturgileen buruzagitzapean kultura-mugimenduak instituzionalizazio-prozesua jarri zuen abian. Halatan, euskararen eta euskal kulturaren birsorkuntzarako kultura-erakundeak sortu ziren: euskal eskolak, euskara modernizatzeko elkarteak, helduak euskaraz alfabetatzeko eta euskalduntzeko erakundeak, argitaletxeak, disketxeak, elkarte zientifikoak eta besterik. Eginkizunak zabaldu eta berezitu ziren neurrian, sortu-tako instituzioak gero eta ugariagoak eta espezializatuagoak izan ziren. Bigarrenik, euskal kultura-esparrua eraikitzeak eragile instituzionalak ez ezik bestelako kulturgile-rolak ere sorrarazi zituen barnean. Hain zuen ere, euskalgintzaren gara-penak berak sortu zuen agertoki historiko egokia ordura arte euskal kulturgintzan ezezagunak ziren kulturgile-rolak definitzeko. Horrela, mugimendua indartu ahala, kulturgile berezituak sortzeko aukera zabaldu zen. Modu horretan eratu zen gero-ko euskal intelektualiaren hobia.

Horrenbestez, mugimenduaren kultura-egintzak harreman-gune gero eta sare-tuagoa osatu zuen, instituzio eta kulturgile gero eta prestatuagoak bildu baitzituen bilbe trinko batean. Haatik, esparruaren giza azpiegitura eta azpiegitura institu-zionala ezartzeaz gain, euskalgintzaren jardunak lortu zuen bestelako eraikun-tzarik ere. Bada, euskalgintza gune kognitibo gisa sortu zen bere hastapenetatik. Hori zen funtsean eta oren gainetik euskal kulturgileek bultzaturiko mugimendua.

2. Nazio-gatazkak garai hartan beste mugimendu batzuentzat sortutako marko nagusi hori, Snow eta Benford aztertzaileek *Master Frame* modura definitzen duten erreferentzia-gunea litzateke. Ikus Snow, Benford, 1992: 138.

Haren barnean, hainbat kulturgile, giza talde eta erakundek esparru kontzeptual eta intelektual berriak eraiki zituzten, indarrean zeuden errealitatearen definizioen ordeko interpretazio-markoak sortzeko. Ildo horretatik, euskalgintza eta euskal kulturgintza gizarte-aldaketara —euskal hizkuntzaren eta kulturaren berreskurapenera eta “normalizazioa” (estatus berrira)— bideratutako ezagutza-ekoizleak izan dira. Hala, bere bilakaera historikoan euskalgintzak baliabide sinboliko franko mobilizatu eta metatu ditu ekoizpen kognitiboaren ahaleginean. 60/70eko hamarraldian mugimenduak sortutako baliabide kognitiboek bi motatako ondorioak izan zituzten. Batetik, ondorio kulturalak, adiera hertsian hartuta. Esan nahi baita, meta-keta kognitiboak euskararen batasuna eta modernizazioa ahalbidetu zituen, eta azpigaraturik zegoen euskarazko kultura-esparruaren eraketari hasiera emateko oinarriak jarri zituen. Bestetik, baina, ondorio politiko nabarmenak ekarri zituen.

Izan ere, aspalditik zetorren —eta frankismoak indartu zuen— diskurtso nagusiak euskara euskal baserriar ezjakinen hizkuntza modura irudikatzen zuen: euskal kultura adierazpen murrizteko errealitatea zen, nekazari-munduko folklokeriari lotutakoa. Bai euskara bai euskal kultura “berez” desagertzeaz zeuden fenomeno aurremodernoak ziren herri-iruditerian. Bestalde, politikoki menderatu behar zen komunitate baten identitatearen adierazpenak izanik, erregimen frankistak ez zuen haien agerpen publikorik, are gutxiago sustapen ofizialik, baimendu luzaroan. Horiek horrela, euskalgintzak egindako kultura-horniketak eta metaketa kognitiboak ageri-agerian utzi zuten historian zehar euskal kultura eta hizkuntzaren gain ezarritako biolentzia sinbolikoa. Hain zuzen ere, euskara eta euskal kultura gizarte modernoak jarritako baldintzetara egokitzeko gai zirela erakustean, euskalgintzaren eragileek azpikoz gora jarri nahi izan zituzten behinolako interpretazio nagusiaren arrazoibideak. Halatan, euskalgintzaren jarduera kulturalaren zeharkako ondorioa guztiz politikoa izan zen.

Arestian esan den bezala, Espainiako “trantsizio politikoak” Hego Euskal Herrira ekarritako instituzionalizazio autonomikoak zedarrizten du euskalgintza aztertzeke hemen hartu dugun hirugarren aldia. Euskalgintzaren oinarri izan den nazionalismoaren zatiketak eta gizarte-despolitizazioak ezaugarritzen dute batik bat ziklo hori. Historian zehar, euskal hiztunen komunitatea, euskararen aldeko mugimendua eta mugimendu nazionalista bat etorri ez diren arren, aranisten nazionalismoaren garaitik unibertso nazionalistak osatu du euskalgintzaren erreferente nagusia. Horregatik, euskal nazionalismoaren zatiketak, instituzio autonomikoek buruturiko politika kulturalen inguruan sortutako eztabaidak eta mugimenduaren beraren instituzionalizazio- eta profesionalizazio-prozesuak goitik beherako birmoldaketa ekarri zuten euskalgintzaren esparrura 80ko hamarralditik aurrera. Ez hori bakarrik, ordea. Prozesu horiek beste fase bat zabaldu zuten hala euskalgintzaren bilakaeran nola mugimenduari lotutako kulturgileen rol sozial eta eginkizunetan.

Estatutik transferitutako eskuduntzen ondorioz sortzen ari zen esparru politiko autonomikoaren kudeatzaileek gogor jokatu zuten euskal kultura-esparrua —ordura arte mugimendu politiko-kultural gisa antolatua— mugimendu-indarrez hustu eta mendeaz hartu arte. Erabilitako estrategiak —erakunde bikoizketak, finantzaketa publikoak eta instituzionalizazioak berak dakarren desmobilizazioa— helburu horretara zuzenduta egon ziren, argi eta garbi. Mugimenduaren desmobi-

lizazio horrek haren etorkizuneko profesionalizaziorako eta barne-dibertsifikaziorako oinarriak ere jarri zituen. Instituzio autonomikoen estrategiak aukera politikorako egitura³ hertsia eratu zuen euskalgintzarentzat 80ko hamarralditik aurrera. Egoera horretan kokatzen da euskararen aldeko mugimenduak garai hartan bizi izandako nortasun-krisia: besteak beste, bere organizazioen zatiketa, diskurtso mailan izandako aldaketa, eta planteamendu nazionaletik maila lokalera egindako itzulera. Ildo beretik, euskalgintzaren autonomiaren eta heteronomiaren arteko auzia indar handiz piztu zen mugimenduko kulturgileen artean.

Esan den bezala, geroztik asko dibertsifikatu da euskal kultura-esparrua. Gauza bera gertatu da esparruko azpiesparruetan diharduten kulturgileekin ere (literaturan, zientziagintzan, irakaskuntzan, musikagintzan...). Euskalgintza, zentzu hertsian hartuta, kulturako azpiesparrurik tirabiratsuenetakoa da gaur egun ere, batetik, bertan islatzen direlako inon baino modu zuzenagoan hizkuntzari lotutako gatazka sinbolikoaren ondorioak, eta, bestetik, diskurtso eta estrategia desberdinak aurkitzen ditugulako lehia bai hizkuntzaren esanahiari dagokionez (hizkuntza nortasun kolektiboari eta botere politikoari lotutako elementu gisa *versus* hizkuntza hitzun-komunitatearen elementu bateratzaile eta ez-politiko gisa) (Larrinaga, 1996: 164-170; 2007b: 241-249) bai administrazio autonomikoaren hizkuntza-politikei buruzko estrategiari dagokienez. Auzi horiek guztiek bertan diharduten kulturgileen praktikak eta diskurtsoak nahasten dituzte zuzenean, jakina.

Bestalde, mugimenduen bilakaeran ohikoak diren instituzionalizazio- eta profesionalizazio-prozesuen ondorioak euskal kultura esparruaren bilakaeran ere islatu dira, bereziki instituzionalizazio autonomikoaren osteko garaian. Izan ere, politika autonomikoaren eragin zuzen edo zeharkakoaren bidez, azken urteetan lehenago euskararenak ez ziren kultura-erakundeak eta kultura-enpresak garatu dira, bereziki eskolak, unibertsitateak, argitaletxeak, hedabideak, disketxeak eta elkarte zientifikoak; horiek guztiek bestelako kultura-jardunguneak sortu dituzte euskal kulturgileentzat. Azken horiek dagoeneko kulturgile espezializatuak dira, alegia, irakasle, akademiko, zientzialari, fisikari, filosofo eta abar, eta ez idazle soilak orain hogeita hamar urte bezala.

Lehenago adierazi denez, hasiera batean, mugimendu-ekimenez sortu zen euskarazko kulturgintza-esparrua eta mugimendu-ekimenez kotsakratu ahal izan ziren kultura-eragileak euskararen munduan, bulkada instituzionalez baino gehiago. Baina, hasierako kulturgile-ereduak —mugimendu intelektualak— sortzeko ez ezik, eredu intelektual horiek aldatzeko eta berriro definitzeko aukerak ere sortu dituzte euskal kulturgileek mugimenduaren barnean. Hala, baldintza soziopolitiko egokiak agertu direnean, mugimenduaren instituzionalizazioak bide eman du bestelako tradizio intelektualak garatzeko beste testuinguru instituzional batzuetan —adibidez, unibertsitatean—. Euskal tradizio akademikoak, esaterako, euskalgintzaren mugimenduaren haztegian dauka lehen jatorria. Uste dugu nabarmendu beharreko ekarpena dela horixe, kultura-esparruan unibertsitatearen instituzioak oraindik gaur egun daukan garrantzia kontuan hartuta.

3. Ingeleseztik *Political Opportunity Structure* kontzeptua. Eisinger, Tarrow, Kriesi eta beste autore batzuek jorratutako tresna kontzeptual horrek gizarte-mugimenduak sortzen eta garatzen direneko testuinguru politikoaren berri ematen digu, testuinguru horrek mugimenduen bilakaeran duen eragina aztertu nahian. Ikus Larrinaga, 2007b: 102.

Halaz ere, unibertsitateen instituzionalizazioak eta tradizio akademikoaren sorrerak ez dute ekarri euskararen eta euskal kulturaren erabateko normalizaziorik testuinguru instituzional horretara. Unibertsitateko kulturgileen zenbait adierazpe- nek erakutsi digutenez, unibertsitate-esparruan mendeko kokapenak dauzkatela hautematen dute akademiko euskaldunek, euskarak ez baitu eskuratu baliabide legitimoaren estatusa esparruan lehiatzeko (Larrinaga, 2006: 151-161). Esparrua- ren arau nagusiak gaztelaniaren alde jokatu du, nabarmen. Hartara, lehiatzko sistema meritukratikuaren barruan arau horren arabera karrera akademikoak saritzen dira bereziki.

Hizkuntzaren eta kulturaren egoera ahularen ispilu, mendekotasun sinbolikoa- ren zantzuak ustez garatuago agertu diren euskal kulturaren beste azpiesparru batzuetan ere islatzen dira aldiro. Autonomia eta, beraz, profesionalizazio-maila erlatiboa lortu duten bestelako azpiesparruetan ere, literaturan kasu, barne-ten- tsioak sortzen dira kulturgileen artean esparruaren arau legitimoak definitu behar direnean: instituzio autonomiko politikoei buruzko autonomia/heteronomia harre- manak (sari-sistemak eta abar) eta ondoko kultura hegemonikoekin ezarri beha- rreko harremanak (kultura hegemonikoak bere legitimazio-instituzioen bitartez euskal idazle bakan batzuen kontsakrazio bereizgarria bermatzen duenean eta abar) horren adibide dira.

Bibliografia

- Bourdieu, P. (1975): "Campo intelectual y proyecto creador", in Askoren Artean, *Problemas del Estructuralismo*, Siglo XXI, Madril.
- , (1983): *Campo del Poder y Campo Intelectual*, Folios, Buenos Aires.
- , (1985): *¿Qué Significa Hablar?*, Akal, Madril.
- , (1995): *Las Reglas del Arte: Génesis y Estructura del Campo Literario*, Ana- grama, Bartzelona.
- , (1997): *Razones Prácticas: Sobre la Teoría de la Acción*, Anagrama, Bartzelona.
- Bourdieu, P. eta Wacquant, L. (1992): *Réponses. Pour une Anthropologie Réflexive*, Seuil, Paris.
- Durkheim, E. (1976): *Educación como Socialización*, Sígueme, Salamanca.
- Elias, N. (1993): *El Proceso de Civilización. Investigaciones Sociogenéticas y Psico-gené- ticas*, Fondo de Cultura Económica, Madril.
- Eyerman, R. eta Jamison, A. (1991): *Social Movements: A Cognitive Approach*, The Pennsylvania State University Press, Pennsylvania.
- Hunt, S., Benford, R. eta Snow, D. (1994): "Marcos de acción colectiva y campos de iden- tidad en la construcción social de los movimientos", in E. Laraña eta J. Gusfield (arg.), *Los Nuevos Movimientos Sociales. De la Ideología a la Identidad*, CIS, Madril, 221-249.
- Iztueta, P. (1996): *Intelligentsia Kimatuaren Orbelak*, Kutxa Fundazioa, Donostia.
- Lamo de Espinosa, E. (2001): "La sociología del siglo XXI", *REIS*, **96**, 21-49.
- Larrinaga, A. (1996): "Diskurtsoaren interpretazio markoak", *INGURUAK*, **15**, 155-178.
- , (2002): "Kulturaren botere sinbolikoa. Euskal *intelligentsia* akademikoaren premiari buruzko gogoeta", in Askoren Artean, *Euskal Unibertsitatea 2021. Egiten ari Garen Euskararen Unibertsitatea*, UEU/EIRE, Bilbo, 383-394.

- , (2006): “Unibertsitate esparrua, gatazka sinbolikoen agertoki: akademiko euskaldunen pertzepzioak”, in A. Larrinaga eta M. Amurrio, (bil.), *Hezkuntza Euskal Herrian Aztergai*, Utriusque Vasconia, Donostia, 123-162.
- , (2007a): *Kulturgileak eta Kulturaren Esparrua 1. Tradizio Intelektualak Beranduko Modernitatean*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- , (2007b): *Kulturgileak eta Kulturaren Esparrua 2. Euskal Kulturgileak Euskalgintza Mugimenduaren Eraikuntzan*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Miranda, B. (1989): “Identidad colectiva y reproducción simbólica”, in A. Pérez-Agote, (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, UPV-EHU, Bilbo, 247-251.
- Snow, D. eta Benford, R. (1988): “Ideology, Frame Resonance and Participant Mobilization”, in B. Klandermans; H. Kriesi eta S. Tarrow, (arg.), *From Structure to Action: Comparing Social Movement Research Across Cultures*, International Social Movement Research, JAI Press, Greenwich, 197-207.
- , (1992): “Master frames and cycles of protest”, in A.D. Morris eta C. M. Mueller, (bil.), *Frontiers in Social Movement Theory*, Yale University Press, New Haven, London, 133-155.
- Tilly, Ch. (1992): *Coerción, Capital y los Estados Europeos, 990-1990*, Alianza Editorial, Madril.
- Weber, M. (1979): *Economía y Sociedad*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- Zalbide, M. (1988): “Mende-hasierako Euskalgintza: urratsak eta hutsuneak”, *II Euskal Mundu-Biltzarra: Euskara Biltzarra*, II alea, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 389-412.

